

Iepa, irakurle! Hauxe duzu zure txokoa, inguruko deialdien berri emateko edo zeure iritzia eta kezak plazaratzeko. Deitu 943 300 222 telefonora edo bidali mezua 943 300 255 faxera edo **barkatu_ama@egunkaria.com** posta elektronikora. **Animatu!**

internet en

irristatzen@egunkaria.com
→ jabi zabala

irristatzen

Freak mundu bizarro-a

Web harrigarri, bitxi, nazkagarri eta barregarria

Umorea, eskatologia, sexua, absurdoa, heriotza, zoofilia... Horrelako elementuak nahasten dira webgune askotan, proportzio ezberdinetan. Orokorrean web *freaky*-ak esaten zaie, ganorazko mezu askorik ez dute baina egileen paranoiak edo sormenaren joerak islatzen dituzten webgune harrigarri eta bitxiak izan ohi dira.

Sarearen lehen garaietatik izan dira web *bizarroak* esaten zaien horietakoak, webgune akademiko eta politikoekin sareko trafikoa partekatzen baina sarearen alderdi *underground*-ean. Egun, ordea, publizitatez jositako webgune komertzialetan ikus ditzakegu horrelako edukiak eta nahiko arrakastatsuak dira:



Bleeeahhh... The Chunkiest, Smelliest, Most Vomitacious Upchucks Ever to Miss a Barf Bag


by Tom Mitchell | April 15, 2000

It's about time vomit scenes were vindicated.

emakume bat bere buruari txiza egiten, trenak harrapatutako jendea... Euren *Arte groteskoaren museoa* dela diote quefuerte.com-ekoek. Egia esan, bideo eta argazki *gagor* batzuk erakutsiko dizkigute webgunean: bideo nazkagarri batzuk, benetako istripuen irudiak eta higuigarri baina gizaki askorentzat aldi berean erakargarri diren horrelako gauza asko.

Horrelako webgune komertzialetan sarri iragarritan ageri diren *Operacion Polvazo* eta horrelako izen atzean sarritan iruzurrak izkutatzen dira, web horietan sartzean norberari ezertarako galdetu barik deskargatzen baita .exe artxibo exekutagarri bat, *dialer* izenaz ezaguna. Telefonoaren bidez Internetera konektatzen diren askori sekulako kaltea eragin die euren konturatu gabe. Kontua da, oharkabean jaitsi dugun exekutagarri horrek modemari telefono batera deitzeko agintzen diola, normalki hegoaldean 906 zenbakiekin hasten den telefono berezi horietako batera. Minutu batzuren buruan sekulako dirutza gastatuko dugu eta ordu batzuk konektatuta egonez gero faktura erraldoiak hel daitezke gure etxera.

Gure artean ere badira horrelako *freak*-ak. Esaterako, Natxo Allende bilbotar marrazkilari polemikoak *pornofreak* eremua zabaldu du bere bideoekin putalocura.com webgunean, bera pailazoarena egiten agertzen den bideo porno erridiku luak jarrita. Historio harrigarriak, txikita-




ko marrazki bizidunetako musikak eta *freakolinks* izenpean *freak* lotura sorta handia ditu metrobilbao.com domeinuagatik izandako aferagatik ezagunagoa egin den morroiak. Baina, nonbait, dirua egin behar du Allende eta bere bideo guztiak ikusi nahi dituenak *dialer* bat jaitsi behar du.

Loturetan, aldiz, webgune interesgarriak ikus daitezke, esaterako toxero.com-en galiziar gizon baten istorioa kontatzen da, nola neska bik mozkortu zuten eta diru guztia lapurtu zioten. Beste batzuetan argazki sorta bitxiak daude: batean jende guztia botaka ari dela, bestean komunzuloen argazki galeria, bestean Barbie larrua jotzen...

Helbideak:

■ www.putalocura.com ■ www.toxero.com
■ www.quefuerte.com

argitalpena



‘Koartelik ez’ aldizkaria. Erandioko Erantzun Ekimena taldeak aldizkari bat argitaratu du bere azkenengo aldarrikapenak azaldu asmoz. Aldizkari xumea da, baina hainbat artikulo interesgarri biltzen ditu, eta eztabaida eta elkarriketarako gune izan nahi du.

Ale honetako gai nagusia Ertzaintzak Erandion egin asmo duen «superkuartela» da. Hala, proiektuaren azalpena, Ertzaintzak Euskal Herrian dituen beste koartel handien azterketa, gastu militarren kritika... egin dute. Bestalde, Cesar Manzanosek eredu polizialaren alternatiba ezberdinak aurkeztu ditu beste idazlan batean.

Erantzun Ekimena talde, gazetxe eta ekimen ezberdinen arteko bateratzearen ondorioz sortu da, eta bere helburua Erandioko koartelak izango duen gastu eta eragina salatzea da. Harremanetarako: udondogaztetxea@sindominio.net. Eta las-ter, www.ertzaintza666.info. webgunea ere prest izango da.

Lehiaketak

Pegatinak/Erretereria. Lau Haizetara euskaldunon elkarteak Madalenetarako pegatina edo eranskailu lehiaketa jarri du abian. Lehiaketaren helburua da hizkuntzaren erabileraz ohartarazi, eta hura bultzatzea herriko jaietarako aterako duen eranskailuarekin, euskarazko mezu baten bitartez. Erretererian jaio, bizi, lan egin edo ikasten dutenek har dezakete parte lehiaketan. Lanak Erretereriako 181 posta kutxara bidali behar dira, ekainaren 14a baino lehen. Informazio gehiago, 943-340143 telefono zenbakian edo lauhaizetara@topagunea.com helbide elektronikoa.

Erakusketak

Jonan Berasaluze / Bilbo. Jonan Berasaluzeren margoak ikusgai izango dira bihartik aurrera Sarea gunean (San Frantzisko auzoan). Ekainaren 28a arte egongo dira jarrita margoak.

Norabide guztiak / Bilbo. Hamabi euskal artista gazteren lanak ikusgai dira, Rekalde aretoan. Hauexek dira artistak: Veva Linaza, Itxaso Dominguez, Mara Reguilon, Iñaki Ria, Ibon Garagarza, Jon Mikel Euba, Jesus Pueio, Lucia Onzain, Miguel Angulo, Pilar Fonseca, Eduardo Sourrouille, Miguel Angel Gaueca. Bizkaiko Foru Aldundiko 1999-2000ko bekadunak izan ziren guztiak. Erakusketa ekainaren 30a arte egongo da zabalik.

Kontzertuen historia / Arrasate
Arrasateko gazetxeko kontzertuen historia karteletan erakusketa dago, gazetxean. 170 kartel eta hainbat sarrera jaso dituzte erakusketan.

Txotxongilo artagintza / Bera. Corrado Masacci italiarrak berak egindako txotxongiloak erakutsiko ditu, maiatzaren 20tik ekainaren 2 arte, Berako Kultur Etxean.

Mohamed Faragi / Bilbo. Mohamed Faragiren lanak ikusgai daude, Sarea gunean (San Frantzisko auzoan). Gaur da azken eguna.

Antzerkia

‘Minutu bakarra’ / Bergara. Antzerkiola Imaginarioak *Minutu bakarra* Ander Lipusen bakarriketa taularatuko du, gaur, 22:00etan, Pol Pol tabernan.

Menage a Trois / Ordizia. Menage a Trois Pasaiaiko taldeak *Entre actrices* antzezlan-kabareta aurkeztuko

du, bihar, ostirala, 22:30ean, Barrena kultur etxean.

Leo Bassi / Elorrio. Leo Bassik *12 de septiembre* antzezlan eramango du, bihar, Elorrioko Arriola kultur aretora. Emanaldia 22:30ean hasiko da.

Guachipilin / Bera. Guachipilin, Nikaraguako txotxongilo taldeak bi ikuskitu aurkeztuko ditu, igandean, Berako kultur etxean. Arratsaldeko 17:00etan, *Historia de sol y luna*, haurrentzako emanaldia eskainiko du, eta 20:00etan, berriz, *Cuecatl* helduentzako ikuskaria.

Totum Teatro / Bilbo. Totum Teatrok *Esa clase de gente* antzezlan taularatuko du, asteartean, 19:30ean, Bilborock aretoan.

Bertsolaritza

AEK-ren eskutik / Amurrio. AEK-ren eskutik egitarauaren barruan, bertso-saioa izango da, gaur, 19:30etik aurrera, Amurrioko kultur etxean. Amets Arzallusek, Xabier Silveirak, Manex Agirrek eta Oihane Pereak hartuko dute parte.

AEK-ren eskutik / Zaldibia. Bertso-saioa izango da, bihar, ostirala, 22:00etan, Antzoki aretoan. Sustrai Colina, Nerea Elustondo, Aitor Sarriegi, Ainhoa Agirreazaldegia eta Iñaki Apalategi ariko dira.

Udaberriko bertso saioa / Bilbo. Udaberriko bertso saioa egingo dute, larunbatean, 12:30etik aurrera, Kafe Antzokian. *Hamaiketako poetikoak* antzezlan aurkeztuko dute, eta

LIBURU GOMENDIOA

Seda

■ Alessandro Baricco

Ez da liburu oso potoloa, orrialde gutxi ditu, baina barruan daraman istorioa benetan oso-oso handia da. Tipo abenturazale baten joan-etorriak kontatzen ditu, bidaiaria izateaz gain, zeta egitea lanbide duena. Hala, herrialde ezezagun pila batera bidaiatzen du, eta guztietan, zeta harrak eskuratzea du helburu.

Bidaia horietako batean, abenturazalea Japoniara iristen da. Ordea, Japonia ez zen gaur egun denok ezagutzen dugun herrialde industrializatua eta garatua. Lurralde ezezaguna zen oraindik, eta per-

Anartz Zuazuaren tik

Aktorea



tsonaia hasieran galdu samarra sentitzen da mundu berri horren aurrean.

Liburu hau Parisen bakarrik

bizi nintzenen irakurri nuen, eta benetan oso identifikatuta sentitu nintzen liburu protagonistaekin. Herrialde ezezagun batean nintzen, bakarrik... Liburuan esaten zirenak oso nireak sentitzen nituen.

Poesiaz beteriko liburua da, barrua ukiaztzen dizuna. Sentimendu oso garrantzitsuak azaltzen ditu, eta arlo asko garatzen ditu. Irakurtzen ari zaren bitartean, oilo ipurdia jar diezazuke, sentimenduak azalarazten dizkizu... Benetan bikaina da.

Hala ere, esan behar dut Alessandro Bericcoren liburu guztiak direla oso gomendagarriak, hiruzpalau baditu, eta guztiak dira oso onak.